

Ingurumen Buletina

- 1. Langileen eskubideak errespetatzen dituen Atez Ateko zabor bilketa baten alde Gipuzkoan**
- 2. Enpresako ingurumen informazioa jasotzeko eskubidea**
- 3. Buenos Aireseko Konferentzia Internazionala Rio+20rantz**
- 4. Kontsumo taldea ELAn**
- 5. "Gure lurra, gure etorkizuna" (dokumentala)**

1. Langileen eskubideak errespetatzen dituen Atez Ateko zabor bilketa baten alde Gipuzkoan

Azken hilabeteetan Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaida piztu da, zehazki atez ate izenez ezagutzen den zabor bilketa sistemaren inguruan. Ezagutzen dugun zabor bilketa sistema eraginkorra atez ateko zabor bilketa da. Hondakinen kudeaketa Europako Zuzentarauan (2008/98/CE) oinarritu behar da eta honek dio hondakinen kudeaketak hierarkia bat bete behar duela: lehenik hondakin kopurua murriztu, ahal den guztia berrerabili eta ondoren birziklatu. Ondorengo pausua litzateke balorizazio energetikoa. Hondakinak erretzea eta zabortegia azken irtenbideak dira. Hondakin organikoak bereiztuta jasotzea ere exijitzen du.

Atez ateko sistema da helburu hauetara gehien gerturatzen den bidea, hondakinen sorrera gutxitzen baitu eta %80tik gorako birziklapen tasa lortzen duelako. Hondakin gehiegi sortzen dugu eta Gipuzkoan ez daukagu azpiegituren sortutakoa kudeatzeko, horregatik beste leku batzuetara eraman beharrean gaude.

Baina arazo hau ez zaigu bat-batean sortu, aurreko urteetan egin hondakinen kudeaketa okerrak eraman gaitu honetara. Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala (PIGRUG) horrenbeste defendatzen dutenak egon dira orain arte Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren buru eta ez dute planak zioena bete. Kudeaketa planaren arabera Gipuzkoan sortutako hondakinak tratatzeko

behar diren azpiegiturek dagoeneko eginak egon beharko lirateke. Hondakin organikoak ere bereiztuta jaso behar dira eta hau ere ez dute egin modu eraginkorrean. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak erraustegia eraikitzea izan du azken urteetan helburu bakar eta ahal zuen guztia egin du hondakinen tratamendu posible bakarra erraustegia zela konbentzitzeko.

Gipuzkoarron partaidetza behar duen proiektua da, pertsona guztion konpromisoarekin soilik egingo baitu aurrera. Horregatik herri kontsultak egitea ere bidezkoa ikusten du ELAk, Baina herri kontsulta hauek ezin dira komeni denean bakarrik eskatu, atez atekoa ezartzeko galdeketa egin behar bada 4 edukiontzi edo materia organikoa jasotzen duen 5. edukiontzia. Aurreko urteetan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan egon zirenek herri kontsultak eskatzen dituzte, baina beraiek erraustegia bultzatzea erabaki zutenean ez zuten galdeketa egin. Beraz erraustegia nahi dugun galdetzeko ere galdeketa egin beharko litzateke, eta nola ez, lurraldea hormigoiez betetzen duten azpiegiturei buruz herritarrei galdetzeko ere: AHT, Pasaiaiko Portua... Azpiegitura handien atzean interes ekonomiko pribatuak daudela ez da berria, eta erraustegia egitea eskatzen dutenak interes hauek babesten ari dira ELarentzat, erakunde sindikal moduan, ezinbestekoa da gaur egun Gipuzkoan zabor bilketa lanak egiten dituzten langileen

eskubideak errespetatzea eta lanpostuak mantentzea. Subrogazioaren onarpena ezinbestekoa da gure babesa emateko. Atez atekoa defendatzen dugu, baina lan eskubideekin, gardentasunarekin eta kontrol ekonomiko eta politikoarekin.

2. Enpresako ingurumen informazioa jasotzeko eskubidea

Ingurumen informazioa jasotzeko eskubidea hiritar orenen eskubidea da. Aarhuseko Konbenioaren arabera, pertsona orok administrazio publikoaren esku dagoen informazioa jasotzeko eskubidea du baita, inork eskatu gabe, administrazio publikoak bildu eta publikatu beharreko ingurumen informazio garrantzitsua jasotzeko eskubidea ere. Ingurumen zuzenbidearen printzipio orokorretako bat da, ingurumenean aldaketak eragin ditzakeen gobernuaren edozein erabaki prozesuren ezagutza eskubidean datza. Aarhuseko Konbenioaren betetzeak gure kasuan hutsune asko ditu.

Lan arloan ere eskubide hori badugu. Aurreko buletinetan aipatu dugu zein garrantzitsua den indarrean dagoen ingurumen legediarekiko enpresek duten egoeraren berri izatea. Baina ez da hain erraza informatuta egotea, enpresak eragozpen asko jarri ditzake nahiz eta informazioa ematea derrigorrezkoa den.

Enpresetan ditugun gure delegatuek enpresaren jardura produktiboarekin erlazionatutako ingurumen informazioa jasotzeko eskubidea dute. Langileen

estatutuaren informazio eta kontsulta eskubidea eta konpetentzien inguruko 64. artikulua dio "Enpresa komiteak hiruhilero informatua izateko eskubidea izango du: (...) enpresaren egoera ekonomikoaren inguruan eta jardueraren momentuko eboluzio eta etorkizuneko aurreikuspenen inguruan, baita enpleguan, produkzioan eta salmentetan eragina izan dezaketen ingurumen jardueren inguruan ere, produkzio programak barne(...)"

Enpresa bakoitzaren ingurumen informazioa behar beharrezkoa da enpresan ingurumen alorrean kontrol zehatza egiteko eta orain inoiz baino gehiago behar dugun garapen ereduaren aldaketan lan egiteko.

3. Buenos Aireseko Konferentzia Internazionala Rio+20rantz

Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren inguruko Konbentziorako, Rio+20, bi hilabete falta direnean, Buenos Airesen martxoan "Langileen ikuspuntu politikoa garapenaren inguruan" deituriko lehen konferentzia internazionala burutu da delegazio sindikatu, eragile sozial eta mundu akademikoaren partehartzearekin eta delegazio internazional zabalarekin. Sindikatuen delegazio internazionala Latinoamerikako hainbat sindikatuk eta ELAk osatu dugu.

Konferentzia honetan Rio+20rako bidean eztabaidak eta proposamenak plazaratu nahi izan ditugu. Rio+20 konferentzia ofizialean bi eztabaida lerro nagusi izango dira: ekonomia berdea eta

gobernantza. Duela 20 urte baino okerrago gaude garapen jasangarriari dagokionez. Buenos Airesen geunden delegazioak bat egin genuen sistemaren aldaketa beharrez, ekonomia berdea edo kapitalismo berdea ez dela irtenbidea. Ezin dugu justizia sozialik lortu kapitalismoarekin, esku gutxitan aberastasuna pilatzen ari denean ezberdintasunak eta pobrezia eraginez. Konferentzian parte hartu dugunok Buenos Aireseko Deklarazioa sinatu dugu, besteak beste ondorengo gogoeta eta eskakizunekin:

- Kapitalismo globala birmoldatzearen saiakerak gaur egungo ekoizpen ereduaren zitalkeria areagotzen du, planetaren mugak gaindituz eta sakeoa areagotuz.

- Krisiak aitzakiatzat balio die gobernu eta nazioarteko erakundeei ondasun komunak merkantilizatzeko: ura, airea, ekosistemak,...

- Garapen eredu honek eragin handia du langileen bizitzetan: langabezi gehiago, eskubideen galera eta lan baldintzen flexibilizazioa.

- Premiazkoa da alternatibaren eraikuntzan lan egitea, argi edukiz hazkunde politikak ez dutela beti bermatzen berdintasuna, zoriontasuna eta justizia soziala. Garapen, ekoizpen eta enplegurako bide berriak esploratu behar dira.

- Jasangarritasunaren paradigma berri bat ezarri behar dugu, produkzioa eta erreprodukzioaren arteko orekan pentsatu, giza bizitzaren zaintza zentroan kokatzea eta gizon eta emakumeen artean elkarbanatzea.

- Herrien Goi Bilerara bidean mobilizatzeko deialdia egiten dugu, garapenaren norabidea aldatzeko. Ez da ingurumenaren arazo bat, planetaren etorkizuna dago jokoan.

Konferentzia honek sindikatuek eta mugimendu sozialek jarraitu beharreko bidea adosteko balio izan du. Herrien Goi bilera izango da Rio+20 konferentzia ofizialaren espazio alternatiboa. Konferentziaren data berean mobilizazioak egingo dira mundu osoan, baita Euskal Herrian ere, eta ELAk parte hartuko du hauetan. Langileok asko dugu egiteko eta aportatzeko aldatetaren bide honetan. Egiten ari gara jada. Greba orokorra da erakusle nagusia. Eta horrela jarraitu behar dugu, mobilizatzen.

4. Kontsumo taldea ELAn

Azken hilabeteetan Elikadura Burujabetzaz arduratuta gaude ELAn eta hainbat material zabaldu ditugu honen inguruan informatuta egon zaitezten. Gure elikaduran eta kontsumoan guk erabaki behar dugula ikusita, pauso bat gehiago eman eta ELAko Bilboko lokalean kontsumo talde bat sortzea erabaki dugu. Nekasarea proiektura gehitu gara, proiektu hau Euskal Herrian zabaltzen joango den beste proiektu handiago baten parte da. Baserritar eta kontsumitzaile sare bat da. Sare honen helburuetako galtzen ari garen elikatzeko eta erlazionatzeko modu bat berreskuratzea da, prezio baxuetan eta pasibitatean oinarritzen den eredu produktibista eta kontsumistak eramaten

gaitu galera horretara. Ardura konpartitua eskatzen duen proiektua da.

Taldearen funtzionamendua ondorengoa da: alde batetik baserritarrak konpromisoa hartzen du kontsumitzaileekin alde aurretik adostutako otarra astero banatzeko eta bestetik, kontsumitzailea denbora batez otarra hartu eta ordaintzera konprometitzen da. Otarra honetan barazkiak, fruta, esnea, ogia, arrautzak, oilaskoa, okela, gazta,...

Produktuak lokalak dira, transgenikorik gabeak eta irizpide jasangarriekin ekoiztuak. Jasangarritasuna ez da ingurumenaren aldetik bakarrik kontuan hartzen (garraio gutxiago, produktu kimikorik ez,...), sozialki ere kontuan izaten da, izan ere, jaki hauek ekoizten dituztenei prezio eta lan baldintza duinak eskaintzen zaizkie.

Ekimen honen printzipioak honela laburtu daitezke: tokian tokiko produkzio agroekologikoa, partehartze aktiboa eta justizia soziala.

Laburbilduz, proiektu honetan parte hartuko duzuenok, taldean egongo diren baserritarrei modu duin batean aurrera

ateratzen lagunduko diezue, lan baldintza egokietan eta nekazaritza eredu jasangarri bat bultzatuz.

Espero dugu hurrengo hilabeteetan kontsumo talde hauek ELAko beste lokaletara zabaldu ahal izatea.

5. "Gure lurra, gure etorkizuna" (dokumentala)

"Gure lurra, gure etorkizuna" dokumentala elikadura burujabetzaz aritzen da, bai Euskal Herrian, bai beste herrialde batzuetan. Mundu osoko nekazarien eguneroko borrokak azaltzen ditu: nekazaritza intentsiboa, agrokimikoak, transgenikoak, transnazionalak, monokultiboak, azpiegitura handiak...

Klikatu [hemen](#) dokumentala ikusteko